REFLEXIONES

SOZIOLINGUISTIKA IRAKASGAIA HITZALDI BATEAN

MIREN AZKARATE

EUSKALTZAIN OSOA ETA EHUKO IRAKASLEA

Ehun urte eta gehiago igaro dira Sabino Aranak Hendaian 1901eko irailaren 16an aztergai dugun hitzaldia eman zuenetik. Euskararen biziberritzeaz eta etorkizunaz aritu zen Sabino Arana mugaz bi aldeetako idazle eta euskaltzaleen biltzar hartan. XXI. mendetik aztertuta, harrigarria gertatzen da Aranak orduan esandakoen gaurkotasuna. Artean sortu gabe zegoen Soziolinguistika jakintza-arlo gisa, baina euskararen pizkundeaz orrialde horietan irakur ditzakegunak bat datoz, bete-betean, berrogeita hamar edo hirurogeita hamar urte geroago hizkuntza gutxituen biziberritzeaz Fishmanek (2001) edo Cooper-ek (1989) esandakoekin, bai eta Euskadin hizkuntza-politikaren alorrean azken hogeita hamar urteotan hartutako hainbat neurrirekin ere. Eta bat datoz, orobat, Mitxelenak Arantzazuko Biltzarrerako prestatu zuen txostenean egin zituen proposamenekin.

Hasteko, benetan deigarria da Sabino Aranaren honako baieztapena: “Euskara jagi eta bizi dadin, ezinbestekoak dira gauza bi aldi berean: bere lurraldearen barruan bizitzarako beharrezko egitea, lagunarte handian zein txikian, eta beharrizan horiek beroriek asebetetzeko gai bilakaraztea”. Beste hitz batzuetan, mende erdi geroago soziolinguistek aldarrikatu zuten *corpusa* eta *estatusa*. Hizkuntza bera prestatzea eta hizkuntzari erabileremu guztiak irekitzea. Edozein gai eta alorretan erabili ahal izateko prestatu behar zen euskara: geografia, historia, soziologia, politika, morala, zuzenbidea, filosofia, arte ederrak, industria, merkataritza, ekonomia, ogasuna… Lizardiren “baina nik, euskara larrekoa nahi haunat ere noranahikoa”. Edo Fishmanen hitzetan esanda, lagunarteko funtzioak ez ezik, funtzio formalak ere bete ahal izateko prestatzea hizkuntza, eta funtzio horiek egiaz bete ahal izateko beharrezko den plangintza egitea. Hala egin ezean, euskarak ez luke etorkizunik: “ez du bestetarako balio izango arrantzale, artzain eta baserritarren kontuez hitz egiteko baino, azkar egingo du atzera mendietako babeslekutik ezkutuenetaraino, eta azkenean galdu egingo da, luze gabe, seguruenik”. Baina funtzio guztiak betetzeko eginkizuna ematen badiogu, “euskaraz gogoa landu, bizimodua atera eta gizartean aurrera egin ahal izateko” gai egiten badugu, “orduan, ziur egon zaitezte euskara sendo eta osasuntsu biziko dela, menperatzailearen esku hartze eta nepotismo guztiak gorabehera”.

Hizkuntza prestatzea da, beraz, lehen eginkizuna. Eta horretarako ezinbestekoa da batasuna, aldaera bakarra izatea (aldaera estandarra). Beste hitz batzuekin adierazita, baina argi dago batasunaren beharra Aranaren hitzaldian: “Onura handia ekarriko lioke euskarari gramatikazko tratatu bakarra izateak, gramatika zehatza eta mundu guztiak onartua; bilduma lexikografiko edo hizkera bakarra, zintzoa, erabat jatorra, osoa eta denek onartua”. Baina, horren aurretik, lehen eginkizuna, ortografia bateratzea da. Bide horixe hobetsi zuen Mitxelenak ere: eginkizun errazenetatik hasi eta zailtasun handiagokoak aurreragoko uztea. Ortografiatik hasi eta morfologiari heldu

zion ondoren Euskaltzaindiak 70eko hamarkadan. 1980tik aurrera, Gramatika eta Hiztegia izan dira Euskaltzaindiaren eginkizun nagusietakoak. Gaur badugu Euskaltzaindiaren Hiztegia eta euskararen gramatikaren berri ematen duen zazpi liburukiren bilduma (eta bidean da Euskal Gramatika Orokorra). Egia da gramatika edo lexikoa ikertzea amaierarik ez duen eginkizuna dela; baina ez da dudarik gaur gramatikari dagokionez ez dela hain zabala landu beharreko arloa eta ez dela hain luzea lexikoaren ikerketan egin beharreko bidea.

Hori guztia beharrezkoa zen, Aranak zioen bezala, baina ez nahikoa. Haugenek (1983) argi utzi zuen *araua* ezarri ondoren (aldaera estandarra adostu ondoren), etengabekoa dela edozein hizkuntzak behar duen eguneratzea, inplementazioa. Hori bera ikusten da, inplizituki, arte ederrak, ekonomia, filosofia, soziologia, politika edo geografia euskaraz lantzeko aldarrian ere. Zorionez, elkarte eta erakunde baten baino gehiagoren lankidetzari esker, unibertsitateei esker, baditugu corpusak, terminologia hiztegiak eta baita Euskal Terminologia Banku Publikoa ere. Euskara unibertsitatera iritsi da eta doktore-tesiak ere idazten dira euskaraz. Sabino Aranaren nahia bete dela esan dezakegu, “nazio kultuetan hizkuntzari eskatzen zaion erabilera sorta ugari eta konplexua guri eskaintzeko gauza” bihurtu dugu euskara.

Hizkuntza bera prestatzea, baina, ez da nahikoa. Beharrezkoa zaio estatusaren plangintza ere: prestatua dagoen hizkuntza hori bizitzako alor guztietara eramatea. Ez dakit zehatz-mehatz zer zuen buruan Aranak euskara “bere lurraldearen barruan bizitzarako beharrezko egitea, lagunarte handian zein txikian” zioenean, nola ulertzen zuen *beharrezko* izate hori. Gaur euskaraz jakitea beharrezkoa da hainbat lanpostutarako, nahiz ez den ezinbesteko baldintza gisa jartzen euskaraz jakitea bulego, lantegi eta lanpostuetan langileak hartzeko orduan. Nolanahi ere euskaraz dakitenak hobesten dira beste askotan (edo, behintzat, euskaraz jakitea merezimendutzat hartzen da). Baina, batez ere, euskara bada administrazioko, irakaskuntzako, hedabideetako, osasun arloko… hizkuntza. Ez, ziurrenik, nahi genukeen mailan. Bada oraindik zeregina, nekez uka daiteke hori. Eta, hala ere, gaurko egoerak ez du zerikusirik 1901ekoarekin. Sabino Aranak beharrezko ikusten zuen euskara artzain, baserritar eta arrantzaleena bakarrik ez izatea. Gaur, zorionez, bada abokatuena, medikuena, erizainena, irakasleena, ekonomialariena, soziologoena…

Beste bi aipamen labur, amaitu aurretik. Sabino Aranak 1901ean aurreikusi zuen zenbateraino zen garrantzitsua eskola, irakaskuntza. Hizkuntza prestatu ondoren “euskal testuak idatzi ahal izango dira eta ikastolak sortu ahal izango dira umeek denetariko gauzak geure hizkuntzan ikas ditzaten. Gainera, ikastolen sorkuntzak ondorio gisa ekarriko du testuen argitalpena”. Hirurogei urte geroago, Mitxelenak hala zioen “euskaraz irakatsi behar euskara biziko baldin bada”. Horixe bera berretsi dute Fishmanek (1991) edo Cooper-ek ere.

Arana gai izan zen gaur inork gutxik eztabaidatzen duenaz ohartzeko. Gizartearen onarpenik ez duen plangintzak ez du aurrera egingo. Ortografiaren batasunaz esandakoak berdin-berdin balio baitu hortik aurrerako edozein urratsetarako

Eta, batez ere, Arana gai izan zen gaur inork gutxik eztabaidatzen duenaz ohartzeko. Gizartearen onarpenik ez duen plangintzak ez du aurrera egingo. Ortografiaren batasunaz esandakoak berdin-berdin balio baitu hortik aurrerako edozein urratsetarako: “eman dezagun sistema biribil-biribila sortzen dugula, izan daitekeen sistemarik egokien eta zentzuzkoena, batere akatsik eta hutsunerik ez duena: bada, hori guztia alferrik dugu, ez badugu gehiengoaren adostasunik lortzen, gehienek euren idatzietan sistema hori erabili eta gainerakoak baztertuko dituztela hitz ematen ez badigute”.

ERREFERENTZIAK

Cooper, R. (1989): Language Planning and Social Change. Cambridge University Press

Fishman, J. (1991): Reversing Language Shift Theoretical and Empirical Foundations of Assistance to Threatened Languages. Multilingual Matters, 1991

Fishman, J. (2001): Can Threatened Languages Be Saved? Clevedon, Buffalo, Toronto, Sidney: Multilingual Matters

Haugen, E. (1983): “The Implementation of Corpus Planning: Theory and Practice”, J. Cobarrubias & J. Fishman (arg.), Progress in Language Planning: International Perspectives. Berlin, New York, Amsterdam: Mouton, 269-289